



BATXILERGOA

# Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

2020-21 IKASTURTEA

ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendaria  
Gaskon Etxeberria Irure

Ikasketa burua  
Ane Zubizarreta Gerendiain

Orientazio burua  
Andrea Etxaniz Machin

## 2. BATXILERGOA: 2 maila

### 2020-21 ikasturtea

#### EBALUAZIOAK:

AZTERKETAK	
1. EBAL.	Azaroak 12, 13, 16 eta 17
2. EBAL.	Otsailak 18, 19, 22 eta 23
3. EBAL.	Maiatzak 4, 6, 7 eta 10

#### ERREKUPERAZIOAK:

AZTERKETAK	
1. EBAL.	Abenduak 17 eta 18
2. EBAL.	Martxoak 22 eta 23
1. DEIALDIA	Maiatzak 13, 14, 17, eta 18
2. DEIALDIA	Ekainak 11, 14 eta 16

#### NOTEN ARGITARATZE EGUNAK:

1. EBAL.	Azaroak 27
2. EBAL.	Martxoak 5
3. EBAL.	Egindako azterketen ordena jarraituz
1. DEIALDIA	Maiatzak 21
2. DEIALDIA	Ekainak 18

#### TUTOREAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

Telefonoa: 943 52 38 04

Posta elektronikoa: oiartzo@ikastola.eus

## IRAKASGAIEN ETA IRAKASLEEN BANAKETA:

### IKASGAI KOMUNAK:

Euskara eta Literatura II	Aitzpea Aizpurua
Lengua y Literatura II	Agurtzane Agirre / Itziar Reparaz
Atzerriko Lehen Hizkuntza II (Ingelesa)	Helena Santamaria
Historia	Andrea Etxaniz / Olatz Mitxelena

### MODALITATEKO IKASGAIK:

#### GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK:

Gizarte Zientzietako Matematika II	Txema Marin
Latina II	Agurtzane Agirre
Enpresaren Ekonomia	Gaskon Etxeberria
Geografia	Andrea Etxaniz
Artearen Historia	Araitz Olaiz
Filosofiaren Historia	Josune Etxeberria

#### ZIENTZIAK:

Matematika II	Txema Marin
Kimika	Jone Gallastegi
Fisika / Marrazketa Teknikoa II	Iñigo Jaka
Biologia	Ane Zubizarreta

### AUKERAKO IKASGAIK:

Lur eta Ingurumen Zientziak	Ane Zubizarreta
Atzerriko Bigarren Hizkuntza II (Frantsesa)	Itziar Reparaz
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia II (IKT)	Jon Xabin Urretabizkaia
Psikologia	Araitz Olaiz
Adierazpen Grafiko Plastikoak	Araitz Olaiz
Adm. eta Kudeaketa Oinarriak	Gaskon Etxeberria

## Taldeen osaketa

- 2 A 33 ikasle. Tutoreak: Agurtzane Agirre  
15 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoan  
18 ikasle Zientzien Batxilergoan
  
- 2 B 35 ikasle. Tutoreak: Helena Santamaria eta Txema Marin  
15 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoan eta  
20 ikasle Zientzien Batxilergoan
  
- 2 C 35 ikasle. Tutoreak: Olatz Mitxelena eta Jone Gallastegi  
14 ikasle Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoan  
21 ikasle Zientzien Batxilergoan

## Gurasoekin harremana

Txostenean bertan adierazita dago tutoreekin hitz egiteko ordurik hoberena. Hala ere, urgentziatzko mezuren bat helarazteko edozein ordutan dei dezakezue.

Bilera orokor honetaz gain, tutoreek bakarkako harremana izango dute gurasoekin seme/alabaren egoera akademikoaz jarduteko, besteak beste. Gurasoek ere edozein momentutan eska dezakete hitzordua.

## COVID-19aren inguruko informazioa

Liburuxka honetan adierazita dauden jarraibideak ikasturte honi dagokion informazio orokorra dira. Dakigun bezala, momentu berezia eta aldakorra bizi dugu. Osasun gorabeherak direla medio, egoera bakoitzak baldintzatzen digunaren menpe gaude eta, horregatik, dokumentu hau asmo-adierazpen gisa ulertu behar dugu, malgua izango dena eta 2020-2021 ikasturtean gertatzen diren berrikuntza edo aldaketetara egokitzeko modukoa.

Kurtso berri hau aurrera ateratzeko azpimarratzekoa da Oiartzo Ikastolako lan-talde eta komunitate osoak erakusten duen prestutasuna eta konpromiso Ikastola gune seguru bat izateko helburuarekin.

Ikastola barruko dinamikak ahalik eta egokien mantentzeko, honako hauek dira, besteak beste gurasoek jakin beharreko segurtasun neurri garrantzitsuenak:

- Goizean, etxetik atera aurretik tenperatua hartzeaz arduratuko da ikasle bakoitza. 37<sup>o</sup>tik gora duen ikasleak etxean geratu beharko du.
- Ikasleren batek ikastolan sukarra izango balu, gurasoei deituko zaie eta hauek ikaslearen bila etorri beharko dute.
- Ikastolako eremu guztian derrigorrezkoa izango da maskara jantzita izatea.
- Eskola-garraioan derrigorrezkoa izango da maskara jantzita izatea, eta maskara kentzea dakarten jarduerak debekatuak geratzen dira (jatea eta edatea).
- Ikasleek ordezeko maskara bat eduki behar dute motxilan edo takilan.
- Iturritik ura ezin da edan; botila bat ekartzea gomendatzen da.
- Atsedendietarako kanpoko guneak lehenetsiko dira.
- Gel hidroalkoholko pote txiki bat ekartzea gomendatzen da.
- Trapu bat emango zaio ikasle bakoitzari erabilitako mahai eta aulkiak garbitzeko. Trapu hau hau egunero eraman beharko dute etxera, garbitu eta bueltan ekarri. Ikastolan plastikozko edo telazko poltsa batean gordeta izango dute eta erabili behar dutenean atera.
- Ikastola bi gunetan banandu da, 1. eta 2. mailako guneak. Ikasleek gune hauek errespetatu beharko dituzte

## Covid 19 kasuen kudeaketa

Ez dute Ikastolara joan behar COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonen, ezta COVID-19aren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenen edo etxeko berrogeialdian daudenen ere. Era berean, ikastolan sintomatologia agertuz gero, ikaslea COVID gelan isloatuko da, prebentzio neurriak hartuz, eta ikastola

familiarekin harremanetan jarriko da ikaslea ahalik eta azkarren etxera eramateko. Ondoren, alde batetik familia bere Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko da eta bestalde ikastolak prebentzio zerbitzuko arlo medikuari jakinaraziko dio.

Kasua positibo bat baieztatuz gero guraso edo tutoreek berehala jakinarazi beharko diote ikastolako zuzendaritzari, ikastolak prebentzio zerbitzuko arlo medikuari jakinarazteko.

## Agertokiak

Eusko Jaurlaritzak uztailen bidali zuen protokoloaren baitan, 3 agertoki desberdin bereizten ditu eskola-jarduerarako. Osasun-egoeraren arabera ikastolako zuzendaritzak edo Hezkuntza Saileko arduradunek agertokiak aldatzeko erabakia har dezakete, beti hezkuntza jarduera eta segurtasuna uztartzeko eredu egokiena ezarriaz. Hauek dira 3 agertokiak:

1. agertokia: nolabaiteko normaltasun agertoki bat da. Ikasle guztiek ikastolan burutuko dute hezkuntza-jardueraren %100a. Eredu hau beharrezkoak diren segurtasun neurri guztiekin egingo da.
2. agertokia: tarteko bigarren jokaleku bat izango da. Bertan, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa uztartuko dira, biak aldi berean. Ikastolara etortzen direnentzat segurtasun eta higiene neurri bereziak aplikatuko dira, eta espazioak berrantolatuko dira behar izanez gero, distantziak mantendu ahal izateko.
3. agertokia: Konfinamendua edo ikasgelaz kanpoko jarduera. Eszenatoki honetan ikasleek modu telematikoan egingo dute jardunaren 100%. Ikastetxeak segurtasun eta osasun planak prestatuko ditu. Gainera, Ikastolak ordutegi eta egutegi egituratu bat prestatuko du etxeko jarduerarako. Beti jarraipen eta kontaktu zuzenpean egingo da jarduera.

Ikastola prest egongo da osasun-egoeraren arabera, agintarien aginduen bitartez edo inguruko kasuen ondorioz agertokiz aldatzeko. Kasu horretan, agertokiaren aldaketa jakin bezain laster abisatuko zaie bai guraso baita ikasleei ere.

## Ebaluazioaren ingurukoak

Hiru ebaluazio dira. Egunean bi azterketa egiten dira lau egunetan. Lau egun horietan ez da klaserik izaten. Ebaluazioan zehar bestelako azterketak, kontrolak-edo, egin daitezke irakasle bakoitzak gaiaren garapenerako beharrezkoa ikusten duen neurrian.

Ebaluazio bakoitzaren ondoren, Alexia bitartez jasoko duzue kalifikazio buletina.

Gaia gainditzen ez bada berreskuratze azterketak daude. Horiek ere klaseak etenda egiten dira, aste batzuk geroago. Berreskuratze azterketak egin ahala, notak ahoz emango zaizkie; informean ere jasotzen dira.

Ikaslea azterketara etorri ezin denean, egunean bertan abisatuz gero eta egiaztagiria ekarrita, ez da azterketa aukera galtzen. Egin ez den azterketa berreskurapen egunean edo irakaslearekin adostutako beste batean egiten da. Ikasleak beste aukera bat izango luke gainditu ezean. Aitzitik, 1. eta 2. deialdietan ez da azterketa egunik aldatuko.

## Azken ebaluazioa eta kurtso bukaerari buruzkoak

Maiatzaren erdialdera klaseak bukatu eta 3. ebaluazioko azterketak egiten dira (maiatzaren 5, 7, 8 eta 11n). Jarraian (maiatzaren 14, 15, 18 eta 19an), lehenengo deialdiko azterketak izango dira. Azterketa horietan, aurreko ebaluazioetan edota 3. ebaluazioan gainditu gabe gelditu diren gaiak gainditzeko aukera dago.

Dena gainditu duten ikasleek Batxilergo titulua eskura dezakete eta Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioara (USE) aurkez daitezke. Azterketak amaitu eta gero, USE prestatzeko klaseak izango dira. Probaren egunak EHUK finkatzen ditu. Ekainan izanten da USEko ohiko deialdia, baina aurten oraidik ez da dataren inormaziorik atera.

Gairen bat gainditu gabe utzi duten ikasleek berreskuratze klaseak dituzte 2. deialdia prestatzeko. Bigarren deialdiko azterketak ekainaren 11, 14 eta 16ean izango dira, eta gaindituz gero, sarbide probako 2. deialdira joateko aukera izango dute. Uztailean izan ohi da ezohiko deialdia.



## Funtzionamendu araei buruzko zenbait ohar

Asistentzia derrigorrezkoa da, eskola orduero kontrolatuko da eta argitu gabeko hutsuneen berri emango zaie gurasoei. Egiaztagiriak ekartzeko ardura guraso eta ikasleena da.

Irteeretara joatea ere derrigorrezkoa da, kurtsoko jardueren parte baitira.

Legeak hala esanda, erretzea debekatuta dago Ikastolako eremu osoan.

Klasera ez joateko proposamenez esan, protokolo zehatza dagoela eta betearazten dela. Klasean geratu nahi duenak jarduera akademikoa bermatua du. Eskola orduen galera handiegia aurreikusten bada, eskolak emango dira ikasketa programak bete daitezen.

Ikasleen gauza baliotsuen erantzukizuna haiek ekartzen dituen ikaslearena berarena da.

Sakelako telefonoek beti isilean eta jasota egon behar dute eskola orduetan.

Gela bakoitzean guraso ordezkari bat behar da.

Kurtsu bukaerako ikasketa bidaiaz: ikus bukaerako eranskina.

Ikastolako araudia web orrian dago eskuragarri.

## Botikak

Ez dugu botikarik emango horretarako baimena ematen ez bazaigu.

## Eskola materialaren kobratzea

Materiala (fotokopiak...) maiatzeko kuotan kobratuko da.



## Unibertsitatera sartzeko ebaluazioa (USE)

Praktikan, 2009-10 ikasturtean ezarri ziren Unibertsitatera Sartzeko Ebaluaziorako (USE) irizpide ia berdinek jarraitzen dute indarrean. Honela, bi proba egiteko aukera izaten da: orokorra edota espezifikoa, nota igotzeko. Bestalde, fakultatearen arabera Batxilergoko gai batzuk gehiago baloratzen dira beste batzuk baino, etab.

Proba honetara aurkeztea edota gainditzea ez da derrigorrezkoa Batxilergoko titulua lortzeko.

Informazio honen berri, modu zehatzagoan, otsail aldera emango zaizue horretarako antolatu ohi dugun gurasoentzako saio berezian, ordurako ikasleek zenbait erabaki garrantzitsu hartu beharko dituzte-eta.

## Aholku orokorrak

Egunero egin behar da lan etxean. Ez da mugatu behar irakasleak eskatutakora. Lanak ezin dira pilatu, azterketa egunetara prestatuta iritsi behar da.

Irakasleak zalantzak argitzeko, berriro esplikatzeko, azken finean, laguntzeko prest daude, baina ikasketen ardura ikasleak hartu behar du. Bestalde, eta eskolan izatearen garrantzia dela-eta, ahalegina egin behar da eskola saiorik ez galtzeko.

Batxilergoko nota 1. eta 2. kurtsoetan egindako gai guztien noten batezbestekoa da. Batxilergoa bukatu ondoren egiten den proban (Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa - USE) lortzen den nota espedientearen %40a izaten da, eta Batxilergoko batezbestekoa %60a. Proba hori unibertsitaterako sarbide proba bat besterik ez da, hots, ez da beharrezkoa gainditzea Batxilergoko titulua lortzeko.

## Irteerak eta beste

Irteerak osasun egoeraren arabera baldintzatuak egongo dira. Hemen aipatzen diren irteerak aurreko urteetan egin ohi direnak dira, eta momentuko baldintzek utziz gero, ikastola hauek aurrera ateratzen saiatuko litzateke:

#### 1. hiruhilekoan:

- Orientazioari lotuta, eta behar adina interesatu bilduko balitz, hala nahi duten ikasleak Deustora (Donostia) joango dira azaroaren bukaeran.
- Tecnun-era ere joango dira hala nahi duten ikasleak, behar adina interesatu biltzen badira, abenduaren hasieran.

#### 2. hiruhilekoan:

- Martxoan Euskal Herriko Unibertsitateko Campusetara bisitak egingo dituzte (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), orientazio programaren barruan.
- Martxoan gairen bati lotutako irteera bat egingo dute.
- Frantseseko ikasleak, martxoan Paris bisitatuko dute (4 egun).

## Euskarazko C1 azterketa prestatzeko ikastaroa

Aurreko urteetan, euskarazko C1 titulua lortzea bultzatu nahian (lehengo EGA titulua), azterketa prestatzeko zenbait saio espezifiko antolatu ohi dira AEK euskaltegiarekin batera. Eskolaz kanpoko saioak izanten dira, arratsaldez. Ikastolak saio horiek diruz laguntzen ditu hein batean. Aurten, HABEko C1 azterketaren deialdia aterako balitz, Oiartzotik ikastaroa aurrera ateratzea bultzatuko genuke, beti ere segurtasun baldintzak bermatzen badira.

## Alexia plataforma

Ikasturte honetan Alexia erabiltzen jarraituko dugu. Gogoratu ebaluazioetako emaitzak eta jakinarazpenak Alexia bitartez bakarrik helaraziko direla. Norbaitek arazoren bat izango balu, zuzendaritzarekin kontaktuan jar daiteke.

## Autobusa

Aurten, aurreko kurtsoan bezala, Orereta/Errenteriako ikasleentzat eskolara etortzeko autobus urbanoa erabiltzeko aukera dago. Autobus enpresatik jakinarazi

digute, eta hala jakinarazi nahi dizuegu zuei ere, autobusak ikasle guztiak sartzeko adinakoak direla (105 plaza). Ahal den neurrian, eta pilaketak ekiditeko, ikasleak autobusean behar den moduan banatuta joateko eskatu digute. Izan ere, gune batzuetan tokia libre egoten da.

## 2. mailako en ikas bidaiaz

Oiartzo Batxilergo Ikastolaren sorreratik, ikas bidaia en antolaketaz ikasleak arduratu izan dira; ez da Ikastolako ekintza bat. Ikastolak ez du bere gain hartzen ikas bidaia en antolaketa, ikasleen ekimena delako.

Ikasleen adina, heldutasun maila eta gaitasunak kontuan izanda, arazorik gabe aurrera eraman dezaketen ekintza da, eta beren formazioan jarduera positibotzat jotzen dugu.

Hala ere, aurren ikasleek ikas bidaia antolatuko balute, hurrengo atalean ikastolaren parte-hartzea norainokoa den zehaztu nahi da, eta zertarako konpromisoa hartzen duen. Ikastola konprometitzen da:

1. Bidaia en antolaketan ikasleek ematen dituzten urratsak behatzera.
2. Arazo iturririk ikusiko balitz, gurasoei informatzera.
3. Bidaia antolatzeko aurkezten diren entitateen edo pertsonen egokitasuna baloratzera eta fidagarria edo ezaguna izatea bultzatzera.
4. Ikasleei antolakuntzarako Ikastolako instalazioak uztera, beti ere ordu libreetan.

Azkenik, Oiartzoko klaustro eta zuzendaritzaren iritziz, zera esan beharra dago: ikas bidaia bakarra bultzatzen saiatu behar da, eta ez talde desberdinak leku desberdinetara edo garai desberdinetan joateko aukera. Bestalde, eta ikuspegi akademikotik begiratuta, irakasleok bidaia Batxilergoko azken proba pasata egitea gomendatzen dugu.

## Egutegia 2020-21

1	Ikasturte hasiera eta amaiera
1	Jai egunak eta oporrak
1	Ebaluazio egunak
1	Errekuperazioak
1	Lehenengo deialdia
1	Bigarren deialdia

**IRAILA**

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

**URRIA**

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

**AZAROA**

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

**ABENDUA**

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

**URTARRILA**

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

**OTSAILA**

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

**MARTXOA**

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

**APIRILA**

A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

**MAIATZA - 2. maila**

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

**EKAINA**

A	A	A	O	O	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

### OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA

Zamalbide auzoa, 16

20100 Orereta/Errenteria

Tel.: 943 52 38 04 - 943 52 03 97

oiartzo@ikastola.eus

www.oiartzoikastola.eus

### BULEGOKO ORDUTEGIA

07:45etik 16:30era